

Foru Aldundia eta Aiarako hainbat enpresa trenbideko hub logistiko bat aztertzen ari dira ADIFekin

Garapen Ekonomiko eta Berrikuntzako diputatua, eragile ekonomikoekin batera, Baionan izan da gaur, adibide arrakastatsuenetako bat ezagutzeko

Vitoria-Gasteiz, 2024ko maiatzaren 30a. Arabako Foru Aldundiak, Aiara Industrial Lab lantaldeko enpresekin eta Arabako Merkataritza Ganberarekin lankidetzan, Aiarako eskualdean trenbide-hub logistiko bat jartzeko aukera aztertzen ari dira, Trenbide Azpiegituren Administrazioarekin (ADIF) batera.

Duela bi aste, Ekonomiaren Garapen eta Berrikuntza Saileko eta Kuadrillako industria nagusietako ordezkariak bilera bat izan zuten ADIFeko kideekin, Estatuko erakunde publikoa salgaien garraioaren arloan gauzatzen ari den hainbat proiekturen garapena ezagutzeko. Bertan, enpresek sektore horren inguruan zituzten beharrak eta kezkak azaldu zituzten, eta lehentasunezko zatia jo zuten salgaien trenbide bidezko garraioa lantzea, lehiakorrak izaten jarraitu ahal izateko.

Bilera amaitzeko, enpresen garraio-beharrak bildu, hainbat tren-operadorekin bilerak antolatu eta balizko Aiaraldea Hub Logistiko baterako eskuragarri dagoen espazio industrialak aztertu zuten.

Baionara bisita

Topaketak Baionako Mouguerreko CEF Europako Zentro Logistiko Intermodala bisitatzeko ere balio izan zuen, eta gaur Saray Zarate Ekonomiaren Garapen eta Berrikuntza diputatuak berak eta Jon de Lapatza Aiara Industrial Labeko presidentek parte hartu dute, enpresen ordezkari gisa.

Bileran, bi aldeek interesa agertu dute harreman komertzialak sortzeko eta fonterizoen arteko lankidetzaren proiektu bat lantzeko, Aiara hartuko duena, baina baita Arabako gainerako lurraldeak ere.

"Trenbideko garraioak salgaientzat eskaintzen dituen aukeren adibide bikaina da CEF, eta erreferentzia logistikari dagokionez; beraz, kontuan hartu behar dugu honaino eramane dituen bidea eta emango dituzten hurrengo urratsak", azaldu du diputatuak, eta Frantziako gobernuak azpiegitura horren alde egindako apustua nabarmendu du: 19 milioi euro merkantzien terminal multimodal bat eraikitzeko, bertatik Cherburgo eta Euskadi arteko trenbide-autobide bat abiarazteko.

"Ziur nago Aiarako eskualdeko enpresentzat oso onuragarria izan daitekeen eredu delako, haien prestazioak eta lan egiteko modua hobetuz. Horregatik, ez dugu aukera galdu behar epe laburrera bultzatzeko aukera aztertzeko", gaineratu du Zaratek, "irtenbide horri esker, gainera, enpresek emisioak murriztu ahal izango lituzkete, errepideko salgaien garraioak duen inpaktuagatik, hau da, iraunkorragoak eta lehiakorragoak izango lirateke".

Gainera, foru ordezkariak gogorarazi du lan ildo hori erabat lerrokatuta dagoela foru gobernua Araba osoan bultzatzen ari den estrategiarekin, "Europako Korridore Atlantikoan dugun kokapen estrategikoa aprobetxatuz, eta Jundizko nodo estrategikoaren aldeko apustu garrantzitsuarekin".